



AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2016ko abenduaren 27a, asteartea

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehen

HASTEKO ORDUA: 20:20 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:43

BERTARATUAK:

Alkatea

Jose Angel Zaldua Iparraguirre

Zinegotziak

Lourdes Salsamendi Goñi, Aitziber Campos Morey, Eugenio Cotado Iturain, Elixabete Bello Martija, Emeterio Iribar Sorazu, Bixente Lasa Karrikaburu, Gotzon Igoa Agirrezabal, Aizpea Ubegun Manterola, Miriam Uranga Egurtza, Jose Angel Iparraguirre Alberdi eta Ana Priede Merchan.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Angel del Hoyo Bravo lehen alkateordeak (EAJ) adierazi du ezin zuela etorri eta, beraz, ez du bilkuran parte hartu.

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, zaborren eta hiri hondakin solidoen etxeko bilketa zerbitzua emateko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa.



- 2.- Onartzea, egoki bada, Kostaldeko Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa erabiltzeko tarifak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa.
- 3.- Onartzea, egoki bada, TEKNIMAPek idatzitako Orioko herriko larrialdietako plana.
- 4.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ZABORREN ETA HIRI HONDAKIN SOLIDOEN ETXEZ ETXEKO BILKETA ZERBITZUA EMATEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia aztertzeko osatutako batzorde informatzailearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Zaldia (EA)], Salsamendi (EA)], Campos (EA)], Cotado (EA)], Bello (EA)], Uranga (Orain), Iparragirre (Orain) eta Priede (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Abstentzioak: Iribar (EH Bildu), Igoa (EH Bildu), Lasa (EH Bildu) eta Ubegun (EH Bildu), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA zaborren eta hiri hondakin solidoen etxez etxe bilketa zerbitzua emateko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketari. Onartu diren tarifak hauek dira:

		Urteko euro-kopurua
a)	Etxebizitza bakoitzeko	149,16
b)	Komertzio orokor bakoitzeko (zapata-dendak, jostailu-dendak, ile-apaindegiak...) eta zerbitzuengatik	321,29
c)	Janari-denda bakoitzeko (harategiak, arraindegiak, urdaitegiak, janariak orokorrean...)	468,14
d)	6 langile baino gehiagoko supermerkatu bakoitzeko	1.418,36



e)	Tabernak, kafetegiak eta antzekoak	457,56
f)	Jantokia duten tabernak	488,91
g)	Jatetxeak, erretegiak eta antzekoak	702,08
h)	Lokal industrialak	
	10 langile arteko industriak	303,45
	10 langile baino gehiagoko industriak	716,98
i)	Bulego komertzialak, gestoriak eta aholkularitza-etxeak	190,77
j)	Banketxeak, Aurrezki Kutzak eta Finantza Entitateak	662,85
k)	Ostatuak, pentsioak eta nekazaritza-turismoak. Izar bateko eta biko hotelak	571,72
l)	Hiru eta izar gehiagoko hotelak	1.397,25
m)	Elkarte gastronomikoak:	
	60 m2 edo gutxiagoko azalera dutenak	142,95
	60-120 m2 arteko azalera dutenak	468,14
	120 m2 baino gehiagoko azalera dutenak	488,91

HOBARIAK

- Lehen zerga-urtean % 50eko hobaria ezartzen da, tasaren tarifen gainean, establezimendu komertzial eta industrial berrietarako, baldin eta jarduera ekonomiko horretarako erabiliko den lokalaren azalera 140 metro koadrokoa edo txikiagoa bada.
- a) ataleko tarifaren zergadunek (etxebizitza-jabeek) hobariak izango dituzte, beren egoera ekonomiko-familiarraren arabera, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (LGS) zuzenean lotuta eta bi zirkunstantzia hauekin ponderatuta:
 - Familiaren etxebizitzan bizi diren eta erroldatuta dauden pertsonen kopurua.
 - Familia-unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarreraren kopurua, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin alderatuta.

Hori guztia, taula honen arabera:



	Hileko soldata, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekiko erlazioan						
Familia-unitatearen kide kopurua	LSM edo <	LSM + %10	LSM + %20	LSM + %30	LSM + %40	LSM + %50	LSM + %60
1-2	%90	%75	%50	%25	-	-	-
3	%90	%90	%75	%50	%25	-	-
4	%95	%90	%90	%75	%50	%25	-
5	%95	%90	%90	%90	%75	%50	%25
6	%95	%90	%90	%90	%90	%75	%50
7	%95	%90	%90	%90	%90	%90	%75

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

3.- Erabaki honek ondoko konpromisoak dakartza berarekin:



- Udaleko Hondakinen Mahaiak datorren hilean egingo du bilkura; hain zuzen ere, 2017ko urtarrilaren hirugarren astean. Egun eta ordu zehatza Urola Kostako Udal Elkartearekin adostu ondoren jakinaraziko da.
- Udal bulego teknikoak hondakinen segimendua egiteko kanpaina bat egingo du; batez ere, honako entitateei egingo zaie segimendua: Orioko futbol taldea, Orioko Arraun Elkarte, elkarte gastronomikoak eta antzeko beste batzuk.

Emandako botoa azaltzeko, Gotzon Igoa zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela honako arrazoiengatik:

- Agintaldia hasi zenetik ez delako Hondakinen Mahaiaren bilkurarik deitu eta Ordenantza Fiskalak onartu direlako mahai horren bilerarik batere egin gabe.
- Gehiegizkoa iruditzen zaielako onartu diren zaborren tarifak erabiltzaile guztiei berdin aplikatzea, bereizi gabe birziklatzen dutenen eta birziklatzen ez dutenen artean; beren ustez, hobariak eman beharko litzaizkieke birziklatzen dutenei.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, KOSTALDEKO DONEJAKUE BIDEAREN INTERPRETAZIO ZENTROA ERABILTZEKO TARIFAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia aztertzeko osatutako batzorde informatzailearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Kostaldeko Donejakue Bidearen Interpretazio Zentroa erabiltzeko tarifak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketari. Onartu diren tarifak hauek dira:

1. TARIFA	Euro/pertsonako
Helduak	0,50
Euskal Herriko museo-sarearen kideak, erretiratuak eta 12 urtetik gorako haurrak	0,20
Langabeak eta 12 urtetik beherako haurrak	Doan



2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

a) Ikusgai dauden tokia: Udaletxeko idazkaritzan.

b) Espedientea aztertzeke eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.

c) Erreklamazioa aurkez dezaketenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

d) Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten dituen tokietan.

e) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik gabe.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TEKNIMAPEK IDATZITAKO ORIOKO HERRIKO LARRIALDIETAKO PLANA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2016ko abenduaren 23an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- ONARTZEA TEKNIMAPEK idatzitako Orioko herriko larrialdietako plana.

2.- BIDALTZEA larrialdietako plan hori Eusko Jaurlaritzara, homologatu dezan.

Gai-zerrendatik kanpo, udalbatzarrak ondoko erabakia hartu du, alde zuzenetik, **AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz], urgentziarik gabe jo ondoren:



5.- ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO BIDE PUBLIKOEN UDAL INBENTARIOARI.

Udalbatzarrak Etxaiz baserriaren jabeek egin duten eskaeraren berri jasotzen du: '14 Erretzabal-Munioeta' bide publikoaren trazatua aldatzea eskatzen dute Etxaiz baserriaren inguruan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hirigintza eta Ingurumen batzorde informatzaileak 2016ko abenduaren 23an emandako diktamena ikusita, eta espedientearen dagoen txosten juridikoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMABI BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Conchi Uriarte Seminariok eta Nekane Azarola Martinezek 2011ko abenduan idatzitako Orioko bide publikoen inbentarioari, bi aldaketa hauek eginda:

- **Lehen aldaketa:** '14 Erretzabal-Munioeta' bide publikoaren trazatua aldatzen da, Etxaiz eta Munioeta baserrien arteko zatian.
- **Bigarren aldaketa:** '14 Erretzabal-Munioeta' bide publikoaren trazatua aldatzen da, Etxaiz baserriaren inguruan.

2.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean **ARGITARATZEA**, jendaurrean jartzeko, interesatuek aukera izan dezaten erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko udalbatzarraren aurrean, 30 laneguneko epean.

4.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Emeterio Iribar zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta honako hau adierazten du, hitzez hitz:

Orioko EH Bilduren izenean.

Naiz EAJk kontrakoa esan, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak dioen moduan, aurreko legealdiko Udal Gobernuak burututako gestio ona aldarrikatzera gatoz berriro. Bereziki diru publikoen erabilera egiterakoan, izandako zuhurtzia azpimarratu nahi genuke.

"En los primeros 30 meses de gobierno, la tesorería municipal ha menguado, hay 6,4 millones menos de lo que dejamos nosotros", zioen EAJk 2014/03/17an.

Adierazpen horiek zirela eta, hurrengo plenoan herritarren eserlektutik EAJko zinegotziei, honako galdera egin zitzaion; 6,4 diru asko da, ia urte osoko



aurrekontua, jakinik diru horiek erabili ahal izateko Plenoko akordioa beharrezkoa dela; esan dezakezue zertan gastatu diren?

Ezin izan zuten erantzun baina guztia argitzeko konpromisoa hartu zuten Lurdesen esanetan. Oraindik itxoiten gaude.

Gu saiatu gera guzti hau argitzen, eta datuak hauexek dira:

- 1. 2.225.000 euro erabili ziren Arraun Etxeko obra eta ekipamendua estaltzeko. Koste zero izango zuela zioen EAJk.*
- 2. 130.000 euro, hondartzako etxebizitza tasatuak konpontzeko. Behar bezala ez bait ziren bukatu.*
- 3. 220.000 euro, EAJk egindako gestio txarraren ondorioz, sententzia bat galdu eta Zaldua familiari ordaindu behar izan zitzaien.*
- 4. 223.000 euro, 2007/2011ko EAJren legealdian Foru Aldundiari utzitako zorrak kitatzeko.*

Aurreko legealdian, 2.798.000 euro erabili behar izan ziren EAJk utzitako zorrak estaltzeko.

Altxortegiko diruak beste bi partidatarako ere erabili ziren:

- 60.000 euro, Etxe Luze erosteko.*
- 680.000 euro, kanpineko taberna berritu eta Bungalowak jartzeko. Inbertsio hauek ez balira egin, ezin izango ziren lortu 270.000 euroko irabazi garbiak aurtengo urtean.*

Bakoitzak atera ditzala bere kontuak baina kontuak garbi.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei, urte amaiera ona eta hasiera hobea opa die eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,